

2003ko OTSAILAREN 20ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta hiruko otsailaren hogeiean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 2002 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTU OROKORRA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2002ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2002ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 2002-12-31ean		88.791,26

Kobratu Gabeko Saldoak, 2002-12-31ean	10.505,27	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	39.516,54	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	1.092,28	+ 51.114,09
DENERA		139.905,35
Ordaindu Gabeko Saldoak		- 128.633,96
Aurtengo Ekitaldikoak	110.385,80	
Itxitako Ekitaldikoak	4.529,83	
Aurrekontuz Kanpokoak	13.718,33	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		11.271,39
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		11.271,39
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		11.271,39

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

KONTU OROKORRA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2002 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espeditentean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta

bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

3.- 2003 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2003 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	89.726,83
2	Zeharkako Zergak	6.010,12
3	Tasak eta Bestelako Zergak	30.825,68
4	Transferentzi Arruntak	309.804,72
5	Ondare Sarrerak	2.777,10
7	Kapital Transferentziak	6.205,55
SARRERAK GUZTIRA		445.350,00

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak	Euroak
1	Pertsonal Gastuak	28.993.434	174.254,05
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	21.581.600	129.708,03
3	Finantza Gastuak	1.450.124	8.715,42
4	Transferentzi Arruntak	12.545.822	75.401,91
6	Inbertsioak	5.893.474	35.420,49
9	Pasibo Finantzarioak	3.635.551	21.850,10
IRTEERAK GUZTIRA		74.100.000	445.350,00

2002 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laborala finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

2002 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
Administratiboa * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
LAN PERTSONALI GORDETZAKO LANPOSTUAK	Lap.Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

2002rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	10.031,00	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	10.947,16	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diplomaduna	C	%36 Berez .	B	17	3.828,16	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	12.544,98	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	4.204,48	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	6.802,88	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

**BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO
LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%26,67 Berez.	E	6	Ez	2	91-02-06	Aktib.	BB

Izena	Soldata	Lan Lekuagatiko Osakina	Osakin Espezifikoa	Hirurtekoak	Besteak	Guztira
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	587,05	389,17	716,50	148,81	58,37 Agrupazioa	1.899,90
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	531,83	311,47	781,94	79,18		1.704,42
GIZARTE LAGUNTZAILEA	317,11	144,27	273,44	24,25	37,64%	759,07
LANETAKO OFIZIALA	531,82	359,37	896,07	63,24		1.850,50
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	220,01	118,93	300,32	6,54	41,37%	645,80
GARBITZAILEA	385,05	149,33	485,92	18,84	79,31%	1.081,88

4.- 2003ko LANGILEEN HITZARMENA

2003 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO

KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarriko egitura, Komunitate Autonomoko

Langileen enplegu kondizioen 2002ko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko textua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela aipaturiko textuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 2003ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

2003 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 2002eko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzailaren testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailan, jasotako eta onartutako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 2003rako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzailan agertzen diren hobekuntza guztiak (2002ko testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzailaren zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 2003ko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 2003ko Urtarrilaren 1etik, 2003ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 2004 urteko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1.590 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

2003ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: IPC – 4%, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzailleak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 0,24 euro ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen aseguru mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sorlekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziosko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Delegatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

2003 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Astelehenetik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

Lizartzan, 2003ko Urtarrilaren 1ean.

2003 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK

IGOERA: 4 %

NIBELA	2002 URTEAN	4%	GUZTIRA	BPFZO
30	3.531,08	141,24	3.672,32	24%
29	3.432,61	137,30	3.569,91	24%
28	3.334,11	133,36	3.467,47	24%
27	3.235,61	129,42	3.365,03	23%
26	3.137,11	125,48	3.262,59	23%
25	3.038,63	121,54	3.160,17	22%
24	2.936,10	117,44	3.053,54	22%
23	2.841,63	113,66	2.955,29	21%
22	2.743,18	109,72	2.852,90	21%
21	2.645,67	105,82	2.751,49	20%
20	2.546,21	101,84	2.648,05	20%
19	2.464,19	98,56	2.562,75	20%
18	2.349,22	93,96	2.443,18	19%
17	2.250,72	90,02	2.340,74	19%
16	2.152,24	86,08	2.238,32	19%
15	2.053,80	82,15	2.135,95	18%
14	1.955,25	78,21	2.033,46	18%
13	1.856,76	74,27	1.931,03	17%
12	1.771,27	70,85	1.842,12	17%
11	1.686,39	67,45	1.753,84	16%
10	1.600,34	64,01	1.664,35	15%
9	1.514,88	60,59	1.575,47	15%
8	1.435,36	57,41	1.492,77	14%
7	1.355,85	54,23	1.410,08	14%
6	1.277,48	51,09	1.328,57	13%

2003 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 4 %

HIRURTEKOA	2002 URTEAN	4%	GUZTIRA
A	49,53	1,98	51,51
B	40,22	1,60	41,82
C	36,15	1,44	37,59
D	29,18	1,16	30,34
E	25,79	1,03	26,82

2003 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	21 x 7,25	152,25
OTSAILA	20 x 7,25	145,00
MARTXOA	21 x 7,25	152,25
APIRILA	19 x 7,25	137,75
MAIATZA	20 x 7,25	145,00
EKAINA	21 x 7,25	152,25
UZTAILA	21 x 7,25	152,25
ABUZTUA	19 x 7,25	137,75
IRAILA	21 x 7,25	152,25
URRIA	23 x 7,25	166,75
AZAROA	20 x 7,25	145,00
ABENDUA	18 x 7,25	130,50
URTEKO ORDUAK 244x 7,25		1769,00

URTEKO ORDUAK	1769,00
OPORRAK 24 LANEGUN x 7,25	174,00
2003 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	1595,00
HITZARMENEN LAN-ORDU ERREALAK	1590,00
SOBERAN	5,00

Idazkariak hitza harturik dio, 2003rako onartzen diren, Estatuko Aurrekontu Orokorren, Abenduaren 30eko 52/2002 Legearen arabera, Sektore Publikoan sartzen diren langileen ordainketen igoera, 2%a baino handiagoa ezin daiteke izan.

Horren arabera, Lizartzako Udaleko Langileentzako, 2003 urterako planteatzen den 4%ko igoera ez da legezkoa.

Idazkariak eginiko oharpenaren jakinean, 2002rako ARCEPAFEK onartutako baldintzak ezarriaz, 2003 urterako, Lizartzako Udaleko Langileentzako igoera, 4%koa ezartzea, aho batez onartua izan da.

5.- A-4 AREA. AZALERA-ESKUBIDEAREN EMAKIDA LEHIAKETARAKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA

LIZARTZAKO UDALAREN JABETZAKO LURSAILETAN BABES OFIZIALEKO 26 ETXEBIZITZA, TRASTELEKU, GARAJEAK ETA LOKALAK ERAIKITZEKO AZALERA-ESKUBIDEAREN KOSTUBIDEZKO EMAKIDA LEHIAKETA BIDEZ ERAENDUKO DUTEN BALDINTZA PLEGUA

1.- XEDEA

Honako pleguaren xedea Lizartzako Udalak, Babes Ofizialeko 26 etxebizitza eta hauei lotutako trasteleku, garajeak eta lokalak hitzartutako sustapen-erregimenean eraikitzeke Lizartzako Udalerriko 4-Arean dituen eta bere jabetzakoak diren lursailetan azalera-eskubidearen kostu-bidezko emakida eraenduko duten baldintzak ezartzea da.

2.- ELEMENTU PERTSONALAK

2.1.- AZALERAREN JABEA

Azalera-eskubidea eratuz Lizartzako Udalak lurzoruaren jabari-titularitatea izanik jarraituko du, eta azalera-eskubidedunari lursail horietan eraikitzeke eskubidea emango dio, planeamenduan eta oinarrietan adierazitako hirigintza-aprobetxamenduaren arabera, aldez aurretik baimena eskuratu ondoren; Udalak gorde egiten ditu etorkizunean sor litezkeen eraikigarritasun inkrementuak, eta horien bidez jadanik egon badauden eraikuntzen gainean eraiki ahal izango du, teknikoki posiblea denean, beti ere.

Gaineraikuntzarako eskubidea gauzatuz gero, amankomuneko elementuen partaidetza-kuotak, azalera-eskubidedunen jabetza bezala, etxebizitzako metro karratuen arabera finkatuko dira, eta harenak murriztuko dituzte.

2.2.- AZALERA-ESKUBIDEDUNA

- A) Esleipen deialdira, bakoitzari dagokion erregimen juridikoen arau erregulatzailen arabera eratu ondoren, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 2/00 Textu Bateratuak exigitzen dituen eskakizunak betetzen dituzten eta ekiteko gaitasun osoa duten pertsona arrunt eta juridiko guztiak etorri ahal izango dira.

Dagokion eskubidea bere alde inskribatuko den azalera-eskubideduna zein izango den, osoko bilkuraren erabakiz finkatuko da, azalera-eskubidearen emakidarako egingo den lehiaketaren esleipen-emaitzaren arabera.

- B) Babes Ofizialeko etxebizitzaren erregimena indarrean dagoen bitartean, azalera-eskubidedun titularrek eraikitakoaren jabaria, xedea, erabilera eta aprobetxamendua babes ofizialeko etxebizitzari buruz indarrean dagoen legeriaren menpe jarriko dituzte.
- C) Eraikuntzaren mantenua bermatzekotan, eratzten den Jabeen Komunitateak honako egitekoak burutu beharko ditu:

1.- Azalera Eskubidearen emakidak 40 urte betetzen dituenetik aurrera, etxebizitzaren metro karratuko, une horretan indarrean dagoen eraikuntza –moduluaren ehuneko 0,5 baino txikiagoa izango ez den kantitatea inbertitu urtero, hurrengo konponketetan:

- Egitura eta eraikuntzazko elementuen sendotasun eta segurtasunari buruzkoak.
- Euria eta hezetasunari dagokien iragazkaiztasunari buruzkoak.
- Instalazioen egoera onari buruzkoak.
- Suteen aurkako segurtasun-neurriari buruzkoak.

3.- ELEMENTU ERREALAK

3.1.- LURZORUA

A) Identifikazioa eta Hirigintza-Parametroak.

Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4. Arian kokatutako, HIRU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HIRU metro eta HIRUROGEITA HAMAHAZPI dezimetro karratu (3.643,77 m²) dituen HIRI LURSAILA. Mugak: Ifarraldetik: Goiz Argi Etxea eta Araxes Ibaia; Ekialdetik: Herri Bidea; Hegoaldetik: Katarain, Bidaurre eta CN-130; eta Mendebaldetik: Herri Bidea eta Laxaroneko Zubia.

B) Lurzorua gorputz ziur gisa zergapetuko da, azlera- eskubidearen lagapena formalizatzean dagoen baldintzetan, eta ez da erreklamagarria izango baldintza geologiko, topografiko edo eraikuntza garestitzen duten tankerakoen ondorioz.

3.2.- ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIOA

A) Azalera-eskubidepean lagatutako lursailen xede bakarra, babes ofizialeko 26 etxebizitza, garaje eta trastelekuen eraikuntzaren oinarri gisa balio izatea da, eta ondoren eraikuntza hauek salneurri tasatuan besterendu egingo zaizkie 2002an indarrean dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Alokairua 5,5 bider baino urteko errenta haztatu txikiagoa duten eta etxe baten jabe ez diren pertsona fisikoei.

Eraikuntzaren garapena eta egikaritzapena esleipendunak hartuko ditu bere gain, bere kontu, arrisku eta abenturara, Udalak onartu beharreko Egikaritzapen Proiektuari jarraiki, eta hau esleipendunak aurkeztu beharko du honako pleguaren laugarren baldintzako 4.2 atalean adierazitako epean.

Eraikuntza egin ondoren, edo lehenago, obra berria eta zatiketa horizontalaren eskritura bidez, azalera-eskubidearen jabetza, Jabetza Horizontaleko Legearen eta horrekin bat datorren araudiaren menpe geratuko da, eraikuntzaren mantenu-gastuak finkatzeko ondorioetarako, eta

etxebizitzako metro karratuen arabera ezarritako kuoten eta bestelako ezaugarrien funtzioan.

Azalera-eskubidearen jabetza horizontaleko titulu indibidualak dagokion Jabetza Erregistroan inskribatuko dira, eta bere titularrak dagozkion eskubide eta betebeharretan subrogatuko dira.

A) Eraikuntzaren ezuagarri orokorrak:

- Familibakarreko 14 etxebizitza, atxikituta edo ilaran, 7 etxebizitzetako 2 taldetan.
- 12 etxebizitza blokean.
- 26 garaje.
- 26 trasteleku.
- 324,66 m² inguruko azalerako lokalak.

B) Azalera-eskubidedunak bere gain hartu beharko du iharduketa-arearen urbanizazioa, bai berezko egikaritzapenaren bidez, bai ekarpen ekonomikoaren bidez, Udalak onartzen duen Urbanizazio Proiektuarekin bat eta Lizartzako Udalaren eta esleipendunaren artean izenpetu beharreko hitzarmenean xedatutakoari jarraiki. Bere eskaintzan 4-Arearen urbanizaziorako xedatuko duen gehieneko zenbatekoa adieraziko du.

4.- EPEAK

4.1.- AZALERA-ESKUBIDEAZ

Azalera-eskubidearen emakidaren iraupen epea 75 urtekoa izango da, lagapenaren eskritura publikoa dagokion Jabetza Erregistroan inskribatzen denetik zenbatzen hasita.

4.2.- ERAIKUNTZAREN HASIERA ETA AMAIERARI BURUZ

Esleipenaren jakinerazpen egin eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean, azalera-eskubidedunak honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu: teknikari eskudunak idatzi eta bere Elkargoak ontzat emandako eraikuntzari buruzko oinarrizko proiektua, eraikuntzarako udal-baimenaren eskabidea eta Babes Ofizialeko Etxebizitzen Behin Behineko Kalifikazioaren eskabidea.

Baimena lortu eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean, azalera-eskubidedunak proiektatutako eraikuntzaren eraikuntza obrei hastapena eman beharko die, aldez aurretik Egikaritzapen Proiektua aurkeztuta.

Obren udal-baimena eskuratu eta, gehienez ere, 24 hilabeteko epean azalera-eskubidedunak eraikuntza-obrak amaitu beharko ditu eta lehen erabilerarako baimena eta Babes Ofizialeko Etxebizitzen Behin Betiko Kalifikazioa lortu beharko ditu.

4.3.- ESLEIPEN KONTRATUAREN GAUZAPENARI BURUZ

Esleipen erabakiaren jakinarazpena egin eta 25 eguneko epean.

5.- ERABILERA EKINTZAK

Azalera-eskubidearen lagapenari buruzko eskritura publikoan, eraikuntza bukatu artean azalera-eskubidedunak eskuratzen duen guztiaren edo zati baten erabilera egiteko debekua ezarriko da, eta debeku hori bertan behera geratuko da dagokion babes ofizialeko etxebizitzen behin betiko kalifikazioa ematen denean.

Debeku horrek ez die eragingo plegu honen 7. atalean aipatzen diren kredituen berme gisa hitzartutako hipotekei.

6.- EROSLEHENTASUNA ETA ATZERA-ESKURATZEA

Lizartzako Udalak gorde egiten du eraikitzen diren etxebizitza, garaje eta trastelekuen gaineko eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubidea. Horren arabera, edozein tituluen bidez egiten diren transmisioetan ondasun horiek eskuratze lehentasuna izango du; eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubidearen egintza hurrengo prozeduraren arabera erregulatuko da:

- Transmittzaileak Lizartzako Udalari transmititzeko nahiaren jakinarazpena egin beharko dio, horren fede emanez, eta indarrean dagoen araudiaren arabera une horretan dagokion salneurria adierazi beharko du. Aipatutako transmisioaren gehieneko salneurriak ez du gaindituko, lehen 20 urteetan, transmisioaren unean babes ofizialeko etxebizitzetan indarrean dagoen salmenta-modulularen %100. 20 eta 30 urtean bitartean ez du %75 gaindituko.
- Jakinarazpena egin eta hurrengo 45 eguneko epean Udalak ez badu eroslehentasunerako eskubidea erabiltzen, jakinarazitako transmisioari dagokionez eskubide hori iraungi egingo da.
- Transmisioaren jakinarazpenean hutsegiterik egongo balitz, eta jakinarazpena okerra edo osatugabea balitz, edo eroslehentasun-eskubidea erabiltzeko epearen iraungipena baino lehen burutu izan balitz transmisioa, edota transmisioa ez balitz egin jakinarazitako baldintza berberetan, Lizartzako Udalak atzera-eskuratze eskubidea erabili ahal izango du, transmisioa egin denaren berri izan eta hurrengo 60 eguneko epean.

Lehiaketaren esleipendunak baldintza hauek agerrarazi beharko ditu transmisio-eskirituran, eraikinen obra berriko aitorpenean eta jabetza horizontaleko erregimenean egindako banaketaren ostean eratzen diren finketako bakoitzean. Era berean, Jabetza Erregistroan termino hauetan inskribatu beharko du.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzaren Apirilaren 15eko 7/1988 Legeak erregulatutako Euskadiko Autonomi Elkargoaren Administrazioaren aldeko eskuratze lehentasun-eskubidearen hartarako deituta, eta 1997ko maiatzak 6ko 103/97 Dekretuak, finkatutako epearen ondoren betekizuna egin ez balitz.

7.- PENALIZAZIOAK

7.1.- ERREGIMEN OROKORRA

Baldintza Plegu hauetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzeak, azalera-eskubidea amaitzea ekarriko du, beti ere, aurrez, azalera-eskubidedunari, errealizaziorako errekerimendua egin eta bete gabe, ezarritako epea igaro bada.

Ondorioz, lurzoruaren jabetzaren eta azalera-eskubidedunaren aurretiazko finkapena Lizartzako Udalaren alde egingo da, eta eraikitakoa bereganatu egingo du, inolako ordainik egin behar izan gabe.

7.2.- ERREGIMEN BEREZIA

Azalera-eskubidedunak obrak eraikitzeko hitzartutako karga edo hipoteken bidez azalera-eskubidea kargatuta egongo balitz, azalera-eskubidea errebokaezinezkoa izaten jarraituko du, gutxienez karga edo hipotekaren liberazioa edo kitapena egi nartean, eta Lizartzako Udalari dagokio azpian adierazitako bideetako bati ekitea, azalera-eskubidedunaren aurka indemnazaziorako jarraipena egitearen kaltetan gabe.

- a) Lurraren jabari-titularitate osoaren eta jadanik egindako obra-zatiaren doako zurgapena egitea zuzenean, karga edo hipotekaren hartzekodunaren aurrean subrogazio pasiboa izanik.
- b) Azalera-eskubidearen eta jadanik egindako obra-zatiaren lagapena ematen dien hirugarren entitate edo pertsona fisikoei subrogazio pasibo bidezko zurgapena egitea, egoki iritzitako parte hartzeko terminoetan, karga edo hipotekaren erregimenari dagokionean ezik, honen iraupena eta baldintzak, nolahi ere, behagarriak izango direlarik.
Adierazitako ondorioetarako, azalera-eskubidedunak eraikuntzarako finantzaketa hartu ahal izatea aurreikusten da, eta finantzaketa hori azalera-

eskubidearen gaineko karga edo hipoteka bidez berma dezake; horrelakoetan, ondorio horretarako eratu eta zabaldutako eragiketa edo kreditua jasotzeko moduak malakatuak izan daitezela ezarriko da, eta Obra Zuzendaritzak onartutako obra burutuari buruzko egiaztagirien aurka justifikatuta egon beharko da.

8.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Azalera eskubidearen emakida honakoek eraenduko dute: eskubidea eratzen duen tituluak, honako Pleguan ezarritako baldintzek, Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratuaren II Kapituluaren VIII Tituluan jasotako xedapenek, eta horien ordezkoko gisa, Zuzenbide Pribatuko arauak.

Lehiaketa eta ondorengo iharduketak honako Pleguan adierazitako klausulek eraenduko dituzte.

Aurreko horietan aurreikusten ez den guztirako, administrazio-kontrataziozko gaietan indarrean dagoen legerian, toki-erregimeneko gaietan indarrean dagoen araudian, hirigintza gaietan indarrean dagoen araudian eta Babes Ofizialeko etxebizitzaren gaietan indarrean dagoen araudian xedatutakoa aplikatuko da.

9.- AZALERA-ESKUBIDEAREN AMAIERA

9.1.- LEHENGORATZEA

Azalera-eskubidearen emakidaren iraupen-epea amaitzean, Lizartzako Udalak, eraikitakoa bereganatu egingo du inolako kalteordainik gabe, eta amaitutako azalera-eskubidearen gain zeuden eskubide pertsonal edo errealak erabakita geratuko dira.

Emakida bitartean Udalak azalera-eskubidearen jabetzaren onuradunei lurzorua saldu ahal izango die, indarrean dagoen legeak dionari jarraiki.

Lehen pasartean xedatutakoagatik ere, Lizartzako Udalak azalera-
eskubidedunari baimena eman ahal izango dio errentaren erregimenpean edo
tankerako baten bidez edukitzan jarraitzeko, beti ere eraikuntzen egoerak
erabilera ahalbidetzen badu eta hirigintza-planeamenduak ez badu lurzoruaren
xede aldatu.

9.2.- BALDINTZEN BETEKIZUNIK EZA

Plegu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak aurreko zazpigarren
baldintzan aurreikusitako ondorioekin eratutako azalera-eskubidea amaitzea
ekarriko du.

Azalera-eskubidearen amaiera gertatzen denean, azaleraren jabeak
higiezinaren jabari osoa kargarik gabe berreskuratuko du, 7.2 baldintzaren
erregimen berezia betetzen denean salbu, eta higiezina bere alde
berrisnkribatuko du, bere interbentzio bakarraren bidez, bere eskabidez, eta
jadanik delako 7. baldintza horretan ezarritako terminoetan obrarik egikaritu
izan balitz, hori ere bereganatu egingo du.

Erabakia gauzatu ondoren eta, ondorioz, azalera-eskubidea eta azalera-
eskubidedunak ezarritako kargak amaituta daudela, Erregistrora joko du eta
eskubide eta karga horiek, hurrenez hurren, notario-aktaren bidez baliogaetu
egingo dira.

10.- HIRIGINTZA-BALDINTZAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

Burutzen den eraikuntzak indarrean dagoen planeamenduan
aurreikusitako baldintza tekniko eta hirigintza-baldintza guztiak bete beharko
ditu, baita obren baimena emateko ekintzan ezarritakoak eta honako Pleguaren
I Eranskinean agertzen direnak ere.

Nolanahi ere, etxebizitza bakoitza berari dagokion trasteleku eta garajeari loturik dago, eta trasteleku edo garaje hauek etxebizitzarekin batera besterendu egin beharko dira.

Era berean, babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikatuak izateko Eusko Jaurlaritzaren araudian eskatutako baldintza tekniko guztiak bete beharko dituzte.

11.- URBANIZAZIOA

Arearen urbanizazio-obren egikaritzapena udal-teknikariek idatzi beharreko Urbanizazio Proiektuan jasotako erabakien arabera egingo da.

Ondorio horretarako, eskeintzaileek beren proposamenetan adierazi beharko dituzten lehiaketan esleipendunak gertatuz gero zer diru-zenbateko ordaintzeko konpromezua hartzen duten, urbanizaziorako ekarpen-kontzeptuan.

Esleipenaren jakinarazpena egin eta hamabost eguneko epean, esleipendunak Udalean banku-abala utzi beharko du, eta abal horren zenbateko Arearen urbanizazioaren egikaritzapena ordaintzeko hartu zuen konpromezuaren berdina izango da.

Bermatutako zenbatekoaren ordainketa egin ostean, banku-abal hori itzuli egingo da, Udalarekin izenpetu beharreko Hitzarmenean aurreikusitako moduan eta eran.

Egikaritu beharreko urbanizazio-obren deskribapena, horretarako aurreikusitako epea eta horren egikaritzapenaz arduratutako pertsona edo entitatea, guztiak ere esleipenduna eta Lizartzako Udalaren artean izenpetu beharreko hitzarmenean garatu egin beharko dira.

12.- AZALERA-ESKUBIDEAREN EMAKIDAGATIKO KONTRAPRESTAZIOA

Lurzoruaren Erregimena eta Hiri Ordenazioari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen 1/1992 EDLren 288.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, azalera-eskubidearen emakidagatik esleipendunak egin beharreko kontraprestazioa honakoa izango da: Udalaren alde eta bere esku jarri beharko ditu 12 etxebizitzaren blokeko 324,66 m² lokalak, karga eta zergetatik libre.

13.- AZALERA-ESKUBIDEAREN MENPE DAUDEN ETXEBIZITZA ETA ERANSKINAK BESTERENTZEKO GEHIENEZKO PREZIOAK

Sustapen honen ondoriozko etxebizitzaren prezioak ezingo du gainditu azalera erabilgarriko 75 metro karratu baino etxebizitza handiagoentzat 2002 urterako indarrean dagoen 955,02 kopurua, aldiz 75 metro karratuko azalera erabilgarria edo txikiagoa duten etxebizitzetara dagokienean, prezio hau %10 gehitu ahal izango da. %10eko gehikuntza hori, halaber, Dentsitate Baxuko etxebizitzentzat aplikagarria izango da.

Etxebizitza bakoitzari lotutako trastelekua eta garajeak ere ezingo dute gainditu, metro karratu erabilgarriko, 2002 urterako indarrean dagoen modulu 382,00 euro.

Nolanahi ere, babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioen gaitan gerta daitekeen araudizko edozein aldaketaren aurrean, esleipendunak espreski hartzen du bere gain bere proposamenean etxebizitza-mota bakoitzerako finkatutako prezioak errespetatzeko konpromezua, eta klausula honen lehen pasartearen aurreikusitako kopuruaren arabera arabera besterenduko du.

14.- PROPOSAMENEN AURKEZPENEA

Proposamenak aurkezteko modu bakarra Lizartzako Udaleko Udaltzaletan eskura ematea izango da. Aurkezpenean bulego orduetan egingo da, Gipuzkoako Buletin Ofizialean eskaintzaren iragarkia kaleratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hogeitasei eguneko epean. Ez da beste aurkezpen-modurik onartuko.

Eskeintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

15.- PROPOSAMENAREN EDUKIA

15.1.- Proposamenak bi (2) gutunazaletan aurkeztuko dira, itxita eta eskeintzaileak edo honen ordezkari gisa iharduten duen beste inork sinatuta, eta gutunazaleko bakoitzean bakoitzari dagokion edukia eta eskeintzailearen izena adieraziko da.

15.2.- 1. GUTUNAZALA – DOKUMENTAZIO OROKORRA

- a) Proposamena aurkezten duenaren N.A.N., norberak bere izenean nahiz ahaldun gisa.
- b) Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eraketa-eskritura edo, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako aldaketa.
- c) Eskaintzaileak ez duenean bere izenean iharduten edo sozietatea, kooperatiba, auzo-elkartea, edo bestelakoren bat denean, sozietate edo entitate hori ordezkatzeko nahikoa ahalordetza adierazi beharko du. Hala dagokionean, ahalmen hori behar bezala inskribatuta egon beharko da Merkataritza Erregistroan.
- d) Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 2/00 legearen 20 artikuluko a, b, c, d, e, g, h, i, j eta k, hizkietan adierazten diren kontratatze debekuetan ez dagoenaren egiaztagiria. Egiaztagiri hori testigantza judizialaren bidez edo administrazio-ziurtagirien bitartez egin ahal izango da, kasu bakoitzaren arabera, eta agintari eskudunak agiri hori ezin duenean igorri, administrazioaren agintaritzaren bitartez, notario publiko edo behar bezala kualifikatutako erakunde profesionalaren aurrean egindako erantzule-aitorpenaren bidez.

e) Enpresei dagokienez eta zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharren betekizunari begira, ondorio horretarako, Sozietateen gaineko Zergan agertzen diren eragiketen bolumen osoaren arabera, dagozkien Ogasun erakundeek (Estatukoak edo Foralak) igorritako egiaztagiria eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren Zuzendaritza Probintzialak igorritakoak aurkeztuko ditu:

1.- Iharduera Ekonomikoen Zergan altan egotea; PFEZen, Sozietateen gaineko Zergaren, konturako edo zatikako ordainketa edo bien konturako atxikipenen eta BEZaren aitortpenak eginak izatea, eta hala dagokionean, baita hauen ordainketak ere.

2.- Gizarte Segurantzaren inskribatuta egotea, edota, enpresario indibiduala izango balitz, Erregimen Indibidualean afiliatua eta altan egotea, eta hala dagokionean, bere zerbitzuan dituen langileak afiliatuta eta altan izatea, eta Gizarte Segurantzarekiko kuoten ordainketan edo bestelako zorrenetan egunean egotea.

Eskaintzaileak proposatutako enpresa eraikitzaileak betebeharrak hauek berak kreditatu beharko ditu, enpresa eraikitzailearekin kontratazio osoa egiten denean.

f) Eskaintzaileak edo honek obrak egikaritzeko proposatzen duen entitateak Ekonomia eta Ogasuna Ministeritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak igorritako sailkapen-egiaztagiria edo honen kopia legeztatua aurkeztuko du, eta honek Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen eta Ogasun Ministeritzaren 1972ko Azaroaren 16ko Aginduaren 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenen ondorioak izango ditu. Nolanahi ere, esleipendun gisa proposatutako eskaintzaileak edo honek obrak egikaritzeko proposatutako enpresak Administrazio Publikoekin aurrekontu berdineko obrak kontratatze gaitzen duen iraungigabeko nahikoa sailkapena kreditatu beharko du. Partikulari, honako enpresari klasifikazioa eduki beharko dute:

A Taldea, 1 Azpitaldea, A Kategoria

C Taldea, 2 eta 4 Azpitaldea, A Kategoria

- g) Hainbat enpresario Enpresen Aldibaterako Batasuna eratuz aurkezten badira eskaintzara, hau osatzen duten enpresarioetako bakoitzak bere iharduteko gaitasuna egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritakoari jarraiki. Era berean, proposamen-idazkian hura izenpetzen duten enpresarioen izenak eta hauetako bakoitzaren ziurkuntzantziak eta partaidetza adierazi beharko dira, hala nola kontraturik erator daitezkeen eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko nahiko ahalmen dituen ahaldun edo ordezkari bakarraren izena ere. Kontratua Aldibaterako Batasun horri esleituko balitzaio, orduan bakarrik gauzatu beharko litzateke eskritura publikoan.
- h) Enpresaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa kreditatzeko honakoak aurkeztu beharko dira:
- Erakunde finantzarioen txostena edo, hala dagokionean, arrisku profesionalengatiko kalteordainen aseguruia egon badagoenaren egiaztatzea, eta
 - Sozietateei dagokienean, balantzeak edo balantze-laburpenak.
- i) Udal Diruzaintzak 3.000,00 euro zenbatekoko behin-behineko fidantza egin izanaren dokumentazio egiaztatzailea. Esleipena erabaki ondoren, esleipendunak gertatzen ez diren eskaintzaileei fidantzak itzuli egingo zaizkie.

15.3.- 2 ZENBAKIDUN GUTUNAZALA (ITXITA): DOKUMENTAZIO TEKNIKO EKONOMIKOA

A) Sustapenari heltzeko erabiliko den sistema:

1.- Sustapen eta eraikuntza zuzena, edo

2.- Enpresa eraikitzailearen bidez kontratazio osoa. Horrelakoetan enpresa horren nortasuna adierazi beharko da, erabili beharreko kontratu-agiriak erantsiz.

B) Sustapen eta Eskaintzaren ezaugarriak:

B.1.) Aurreproiektua:

- Eraikuntzen plantak, altxaerak eta etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarria.
- Urbanizazio-eskema.

B.2.) Azterketa ekonomiko-finantzarioa:

- Kostuen banakapena
 - Kontrata-Aurrekontuak
 - Proiektuaren idazketari eta obren zuzendaritza eta ikuskaritzari dagozkien ordainsariak.
 - Segurtasuna eta Higienea; Kalitate Kontrola
 - Gastu Finantzarioak
 - Lizentziak eta Tasak
 - Lurzorua
 - Gestio-Gastuak

- Aseguruak eta Bermeak, etab.

- Sarreren banakapena

Etxebizitzaren salneurria, beren tipologia (azalera erabilgarria, dentsitate baxua ...), trastelekuak, garajeak eta aprobetxamendu independientea izan dezaketen bestelako elementu bakarrak (G.A.O.ean deialdiaren argitarapena egiteko unean indarrean dagoen moduluari buruzkoak).

B.3.) Urbanizaziorako ekarpena, ondorio horretarako formalizatutako banku-abalaren bidez ordaintza hori bermatuz. Esleipendunak Udalean utzi beharko du abal hori, esleipen-datatik zenbatzen hasi eta hamabost eguneko epean.

C) Hala dagokionean, kooperatiba edo elkartearen estatutuak eta barne-funtzionamenduko erregimena, etxebizitzaren esleipendunak eta bazkideak onartzeko aplikatzen den prozedura eta baremoa adieraziz.

C) Proposamenaren laburpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako erreduari jarraiki.

16.- PROPOSAMENEN IREKIERA ETA AZTERKETA

Proposamenen irekiera jendaurrean egingo da Lizartzako Udaleko Areto Nagusian, proposamenen aurkezpen-epea bukatu eta hurrengo eguneko 13,00tan. Lehenik eta behin, 1 zenbakidun gutunazalean dauden agiria guztiak banan bana egiaztatuko dira.

Ondoren, onartutako eskaintzaileen 2 zenbakidun gutunazala irekiko da, eta interesgarritzat jotzen dituen datu guztiak irakurriko dira. Honen ostean, dokumentazio guztia Udal Zerbitzu Teknikoetara igorriko da bertan dokumentazio hori aztertu eta dagokion txostena idatz dezaten. Lehiaketaren esleipena osoko bilkuraren erabakiz egingo da.

Hona hemen Kontratazio Mahaia osatuko duten pertsonak:

Lehendakaria: Udaleko Alkate-Lehendakaria edo bere ordezkotzat hartutako Zinegotzia.

Mahaikideak: Lehendakariak izendatutako Zinegotzia.

Udal Arkitekto Aholkularia.

Idazkaria: Udal Korporaziokoa.

17.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

17.1.- Esleipena egiteko orduan kontuan izan beharreko oinarrizko irizpide gisa, beti ere dagozkien baldintza ekonomikoen baitan, etxebizitzaren sustapen eta egikaritzapena proposatutako baldintza eta epeetan behar bezala egingo direla ziurtatuko duten bermeak aintzat hartuko dira.

Ondorio horietarako, bai entitatearen berezko berme orokorrak eta eskaintzaileen istorioa, bai eskaintzen euskarri diren dokumentazioetatik eratorritako berme espezifikoak (gestio-enpresak, enpresa eraikitzaileak, etab.) hartuko dira kontuan.

17.2.- Esleipen-irizpideak:

1.- Aurkeztutako aurreproiektuaren kalitatea, hala dagokionean, Babes Ofizialeko Etxebizitzentzat finkatutako gehienezko salneurriekin alderatuz, etxebizitza eta eranskinetan eskainitako salneurrien beharpena, 2002 urtean indarrean dagoen modulu haztatu eta koefiziente aplikagarrien arabera, urbanizaziorako ekarpena eta obren iraupenerako epea baloratuko dira.

2.- Era berean, lehiatzaileek, AdminIstrazio Publikoekin hitzartutako sustapenetan duten esperientzia baloratuko da, bereziki, Babes Ofizialeko Etxebizitzen eraikuntza eta sustapenean dutean.

3.- Lizartzako kooperatiba edo elkarteek aurkeztutako proposamenak bereziki lehenetsiko dira.

18.- SUBROGAZIOA

Espreski debekatuta dago edozein pertsona fisiko nahiz juridikoren subrogazioa egitea, esleipendunaren eskubide eta betebeharrei dagokienean, Lizartzako Udalak espreski emandako baimen idatzia egotea salbu, eta horretarako subrogazioan interesatuak aldeztatik egiaztatu beharko du behar besteko kaudimen tekniko eta ekonomikoetarako eskakizunak betetzen dituela, eta honako pleguan inplizituki adierazitako baldintza guztiak onartzen dituela.

19.- BERMEAK

Eskaintzaileek 3.000,00 eurotako behin-behineko fidantza utzi beharko dute, eta esleipendunak, 150.000,00 eurotako behin betiko fidantza.

Bi bermeak ere, AdminIstrazio Publikoen Kontratuen ekainaren 16ko 2/2000 Legeko 35 artikuluan eta hurrengoetan onartutako edozein bideri jarraituz eratu ahal izango dira.

Behin-behineko fidantza esleipena egin eta hurrengo bost egunetan itzuliko zaie kontratua esleitu ez zaien eskaintzaileei.

Behin betiko fidantzak azalera-eskubidearen esleipenagatiko kontraprestazioa bete egingo dela eta babes ofizialeko etxebizitzak eta eranskinak behar bezalako denboran eta moduan eraikiko direla bermatzen du.

Berme hau obrak bukatzean itzuliko da, behin betiko kalifikazioa eta lehen erabilerarako baimena eskuratu, eta azalera-eskubidearen emakida-esleipenaren kontraprestazio gisa, Udalari lagatutako ondasunak espezieetan eskritura publikoan jaso ondoren.

Obren hastapenean justifikatu gabeko atzerapenik egongo balitz, edota obrak hasi eta etenaldirik egonez gero, 600,00 eurotako isuna ezarriko da atzerapen-egun bakoitzeko.

20.- GASTUAK

Esleipendunak Aldizkari Ofizialetan argitaratutako iragarkiak eta derrigorrezko beste gastu batzuk ordainduko ditu, baita esleipenaren zergei dagozkienak, eta azalera-eskubidearen emakidaren erregistroko inskribapenari eta formalizazioari dagozkienak ere.

Xedea dela-eta, hau da, babes ofizialeko etxeen eraikuntza, azalera-eskubidearen lagapenagatiko eskritura publikoa egitean babes ofizialeko etxebizitzan legerian xedatutakoaren arabera egon daitezkeen salbuespen eta hobariak aplika daitezela eskatuko da.

Behin Udalak onartuz gero, Baldintza Plegu hau, zortzi egunetako epean jendaurrean jarriko da, egokiak diren oharrek egin ahal izateko, honekin batera, lizitazioaren deialdia egitearen kalterik gabe.

Lizartzan, 2003ko Otsailaren 17an.

PROPOSAMEN-EREDUA

..... Jn/And.k, helbideako, kalean duenak eta NAN zenbakidunak, bere izenean, edo izeneko enpresa, kooperatiba eta abarren ordezkari gisa, helbidea:, kalea:, telefonoa, eta IFK

HONAKOA AITORTZEN DUT

- 1.- datako zenb.dun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren berri izan dudala, Lizartzako Babes Ofizialeko 26 etxebizitzaren sustapen hitzartuaren onurak esleitzeko lehiaketari buruzkoa.
- 2.- Era berean lehiaketa hori eraenduko duten Proiektua, Memoria, Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio Klausula Partikularren Plegua eta gainerako dokumentazioa ezagutzen ditudala, bere osotasunean espreski onartu eta men egiten dudalarik.
- 3.- Nik ordezkatzan dudana enpresa, kooperatiba edo elkarteak indarrean dagoen araudiak exigitutako eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.
- 4.- Eskaintza honen xede den sustapenari dagokionez, hurrengo baldintza ekonomikoak proposatzen ditudala:
 - a) 75 metro karratu edo gutxiagoko azalera erabilgarria duten etxebizitzaren salneurria, euro (BEZ gabe).
 - b) 75 metro karratu baino azalera erabilgarri handiagoa duten etxebizitzaren salneurria, euro (BEZ gabe).
 - c) 75 metro karratu baino azalera erabilgarri handiagoa izanik, dentistate baxuko etxebizitzaren salneurria, euro (BEZ gabe).

- d) Etxebizitzari lotutako trastelekuaren salneurria, euro (BEZ gabe).
- e) Etxebizitzari lotutako garajearen salneurria, euro (BEZ gabe).
- f) Sustapenean ekiaritzapen osoaren gehienezko epea hilabete.
- g) Gestio-kostuari eta kontratari dagokien egikaritzapen aurrekontua, euro.
- h) Hustapen-sistema edo mota
- i) Urbanizaziorako ekarpena, euro, Udalean zenbateko hori duen eta kontzeptu hori adierazten duen banku-abala entregatzeko konpromezua hartuta, esleipenduna gertatuz gero hartarako ezarritako epean, eta zenbateko hori ordaintzeko konpromezua.
- j) Lizartzako Udalari, erabilgarri dituzten m² lokalen lagapena, azalera-
eskubidearen esleipenaren kontraprestazioan.

Lizartzan, 2003ko

I. ERANSKINA

ERAIKINEN BALDINTZA TEKNIKOAK

ERAIKUNTZA-SISTEMA, MATERIALAK ETA AKABERAK

ZIMENTAZIOA

- .- Harlauza armatu bidezko zimentazioa, zonako datu geoteknikoen arabera. Bestelako irtenbiderik hartuz gero, azterketa geoteknikoan oinarrituz justifikatu beharko da.
- . - Dagozkion Eraikuntzarako Arau Teknikoen (EAT)betekizuna.

SANEAMENDUA

- .- Eraikuntzarako Oinarrizko Arauen araberako kutxetak.
- .- Zementu eta leunketazko zarpeatuen akaberak. Angular metalikoen gainean estalki metalikoa.
- .- Hormigoi zentrifugatuzko tutueria morteruzko ohe gisa, lehen kalitatezko materialekin.
- .- Dagozkion EATen betekizuna.

EGITURA

- .- Indarrean dagoen araudiaren betekizuna.
- .- Forjaketaren ertz berdina duten habe lauen gaineko habetxoek forjaketan. Pobexpanezko gangatilak lehen solairuko forjaketan eta estalki azpian.
- .- Dagozkion EATen betekizuna.

IGELTSEROTZA

.- Lehen kalitatezko eta hainbat neurritako zeramikazko elementuen erabilera.

.- Isolamendu termiko eta akustikoentzako indarrean dagoen araudia.

.- Oinarrizko Banaketak:

- Erabilera desberdineko gelen artean eta zona hezeetan, hutsune bikoitzeko tabikoia.
- Erabilera berdineko gelen artean adreilu huts bakanezko panderete-tabikeak.
- Etxebizitzen banantzaile gisa, trikotezko oin erdia.

.- Fatxadak adreilu huts bikoitzeko oin erdikoak, bistako azalarekin konbinatua isolamendu termiko eta akustikoarekin eta adreilu eta panderete arteko tabikea, erretsinazko gehigarrien bidez gogortutako igeltsozko akabera, proiektzio bidez aplikatua eta gai bizien tratamendua, edo fatxaden tratamendua zarpeatu eta antzeko kalitatezko margo bidez.

.- harrizko plakadura beheko solairuko zonaldeetan, ataripeetan barne, eta hutsuneen konfigurazioa.

.- Dagozkion EATen betekizuna.

ZOLATUAK ETA ALIKATATUAK

.- Atariak, eskailerak eta zona amankomunak, terrazozko zoladura zeramikoarekin, eskailera-mailak, eskoziak, zanbakeak eta errodapiak eratuz.

.- Etxebizitzak:

- Logelak eta egongelak parket leunduarekin eta poliuretanozko bernizketarekin.
- Egurrezko errodapia.
- Bainugelak eta sukaldeak egosketa bakarreko gresezko plaketa esmaltatuarekin zoru eta paretetan, sabairaino iritsiz.

.- Xafla akustikoak, zolatuen araudia betetzeko.

.- Dagozkion EATen betekizuna.

AROTZERIA

.- Barneko aldeak:

- Etxebizitzetarako sarbideetan egur noblezko ateak, eta segurtasuneko tratamendua orri, marko eta itxiduretan eta 82,5 cm.ko orria, edo araudian adierazitako neurria.
- Barneko banaketak ate normalizatu eta homologatuekin, akaberak egur nobleetan, bernizatzeko, gainerakoetan 72,5 cm.ko orria, edo araudian adierazitako neurria.

.- Kanpoko aldeak:

- Anodizatutako aluminioak, zubi-hausketa, edo iroko egurrarekin, zuzendaritzak aukeratu beharreko kolorea eta PVCko pertsianak eskuz eragitekoak, egokitasun ziurtagiri homologatuarekin eta bere ezaugarrien sailkapenarekin.

.- Burdineria:

- Metalikoa, margotzeko, aldez aurretik miniozko inprimaketarekin, sua mozteko tratamenduarekin garajeetarako sarbideen su-sektorketan.

- Dagozkion EATen betekizuna.

ESTALKIAK

- .- Teilape-trenkadez eratutako isurkia eta zeletipezko taulak, tratamendu termino iragazkaitzadunak, teila zeramikozko edo ur-biltzailea duen hormigoizko estalkigaien aurretik emana.

INSTALAZIOAK

ITURGINTZA

- .- Hondakin eta euri-uren ebakuazioa PVCzko hustubide, sifoi-ontzi, zorroten eta kolektore normalizatuekin, sare bereizlearen bidez.
- .- Higiene-uraren horniketa galbanizatutako burdinezko edo kobrezko tutuerien muntagen bidez, etxebizitzako zenbagailu indibualekin behe solairuko mailan.
- .- Uraren barne banaketa sabaietatik, kobrezko tutueria babestuan, lokal hezeagatiko mozte giltzekin.
- .- Portzelanazko komun-osagaiak, lehen kalitatezko iturri kromatuekin.
- .- Dagozkion EATen betekizuna.

ELEKTRIZITATEA

- .- Sistemak hartune orokor eta independentea izango du atarigune bakoitzeko, eta hoiek energiaz hornituko ditu bai gune horretako etxebizitzak, bai horri lotutako lokalak ere.
- .- Garajeko solairuetarako beste hartune independente batzuk aurreikusi dira. Beren erabilerarako Araudi espezifikokoak betez, segurtasuneko bigarren hartune batez hornituko dira.

- .- Banaketa-sarea: Lokal eta etxebizitzetarako, beheko solairuan zentralizatuta dagoen zenbagailuen gelatik abiatuta. Gela honetatik etxebizitza, lokal eta eskaileratako muntaga nagusiak aterako dira, horietako bakoitzeko babes-koadroetaraino.
- .- Etxebizitzak: Indarrean dagoen Araudiarekin bat, etxebizitza bakoitzaren sarreran babes-koadroa izango da, eta hau kostu eta babeserako diferentzial orokorra eta etengailu magnetotermikoak edukiko ditu “mota ertaineko” etxebizitza bakoitzeko; bertan ere konpainiaren mugatzailea egongo da. Barneko banaketa kobrezko hari bidezkoa izango da, enpotratutako PVCzko hodipasagailuetan bideratua, lehen mailako bide homologatuak erabiliz. Etxebizitza bakoitzeko Telebista, FM eta telefono bina puntu aurreikusi dira.
- .- Atezain automatikoa, atarigune bakoitzeko sistema baten instalaioa proiektatu da.
- .- Antenak eta tximistorratzak. Zentralizatuak izango dira, araudiarekin bat eta aurreikusitako konexio guztiak izango dituzte (publikoak, pribatuak, estatu espainiar nahiz frantsesekoak).
- .- Dagozkion EATen betekizuna.

BEROGAILUA ETA UR BEROA

- .- Aurreikusitako sistema, hormako gas-galdara indibidual mistoa da, berogailurako eta higiene-urak berotzeko, erradiadoreak eta hainbat neurritako kobrezko tutueriaren instalazioa, eta plastiko uzurtuz babestua, giro-termostatoa, irteera independenteak airea hartzeko eta aireztapenerako saretoak barne.
- .- Dagozkion EATen betekizuna.

IGOGAILUAK

.- Lehen aiaptutako atarigune bakoitzean lau lagunentzako igo eta jaisteko igogailua egongo da, pisu-solairu bakoitzean ate erdiautomatiko zuzkitutako kabinarekin.

.- Hurbilerraztasun Araudiarekin bat kokatuko da.

.- Dagozkion EATen betekizuna.

SUKALDEA

.- Ur-berogailu/galdara mistoa, ke-irteeren estalkirainoko hodiarekin.

ZERBITZUAK

.- Bainugela eta komuna osorik.

.- Barneko paitorako esekitokia, edo fatxadan, zursarez estalia.

TELEKOMUNIKAZIOAK

.- Babes Ofizialeko Etxebizitzetan Antena Kolektiboaren Instalakuntza. 1967ko Abuztuaren 26ko Agindua

.- Eraikuntzen Barnean Telekomunikazioko Infrastrukturen Zuzkidura. 1999ko Ekainaren 22ko 183/93 Dekretua

Lizartzako Udalaren jabetzako lursailetan Babes Ofizialeko 26 etxebizitza, trasteleku eta garajeak, eta lokalak eraikitzeke Azalera-Eskubidearen Kostubidezko Emakida Lehiaketa bidez eraenduko duten Baldintzen Plegua, aho batez onartua izan da.

6.- A-4 HIRIGINTZAKO PROIEKTUAREN LEHEN ONARPENA

Pilar Azurmendi Etxegarai, Udaleko Arkitektoak idatzitako, Lizartzako Laguntzazko Arauetako 4-Areako Hirigintza Proiektua.

Kontutan harturik, azaltzen diren obrak eta batzutzen diren agiriak, Laguntzazko Arauen aurreikuspeneta egokitzen direla, eta txosten tekniko eta juridikoa aldekoak direla, Udal Batzarrari proposatzen zaio:

- 1.- Lizartzako Laguntzazko Arauetako 4-Areako Hirigintza Proiektuari lehen onarpena ematea.
- 2.- Jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Egunero Egunkarian iragarkia argitaratuaz, alegazioak jarri ahal izateko.
- 3.- Alegaziorik egoten ez bada, behin betirako onartutzat hartuko da.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-4 Areako Hirigintzazko Proiektua, bilkura bertarako zazpi zinegotzien, aldeko botoekin, aho batez onartu da.

7.- IRAK ERASOTZEAREN AURKAKO MOZIOA

Florentziako foro sozialak hala eskatuta, otsailaren 15aren inguruan gerraren aurkako manifestazio eta era guztietako azalpenak egingo dira. Izan ere, berriro, gerra arriskuan gaude. Amerikako EB-k Nazio Batzuen ebazpenei muzin eginez, Erresuma Handiko gobernuaren laguntzaz erabaki du Irak erasotzea.

Bere buruari aplikatzen ez dion argudioaz baliatuz, berriro, (nork kontrolatzen du AEB armagintza atomikoa, kimikoa eta bakteriologiakoa?) Irak militarki oldartu nahi du. Nonbait, herri horrek jasaten duen hamar urteko blokeo bidegabe aski ez, eta azken kolpea eman nahi dute.

Aitzakiak aitzakia denok dakigu zergatik. Petrolio erreserba estrategikoak kontrolatzeko, Persiar Golkoa zuzenean kontrolatzeko. Herriak bere etorkizuna

libreki erabaki beharrea, AEBtako interes geoestrategikoen arabera, etengabeko injerentziak jasan behar izaten dituzte.

Zoritxarrez, politika hori salatu beharrea, Espainiako Gobernuak berebiziko sostengua eman die AEBei, zergen bidez kentzen digun dirua azpiegitura bitartez gerrarako erabiliz, eta bere menpean gauden herritarrak gerra dinamika arriskupean ezarriz. Iraken aldetik erantzuna egongo balitz salbu gera gaitezkeela uste du norbaitek?

Hau guztia dela eta, ondorengo mozioa eztabaidatu eta onartzea proposatzen da:

- 1.- Lizartzako Udalak ezezko borobila ematen dio AEBk Irak erasotzeko asmoei. Eta herri horren aurka, indarrean dagoen blokeo bidegabea bertan behera gera dadin eskatzen du.
- 2.- Udalak, Espainiako Gobernuak eraso horri ematen dion laguntza politikoa eta materiala salatu egiten du. Eta Europar Batasunari gerraren aurkako jarrera tinko eta aktiboa mantentzea eskatzen dio.
- 3.- Udalak, gatazka konpontzeko elkarrizketa dela bidea aldarrikatzen du eta herrien arteko justizia eta errespetuan oinarritutako nazioarteko harremanak gauzatzeko ezinbestekoa dela herrien eskubideak eta burujabetza errespetatzea.

Lizartzako Sozialista Abertzaleak Udal Taldeak aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

JOSE SALSAMENDI ARTOLA

Lizartzako NNSS-en arabera lur urbaniezinetan txabola eta borden eraikuntza ahalbideratzen da baina baldintza mugatutan, "en precario" deritzan baldintzapetan.

Txabolak ondorengo baldintzak izango ditu:

- 1.- Txabolak, nekazal edo abelzaintzari lotutako erabilera izango du soilik, urik ez argirik izateko eskubiderik gabe. Ezingo du iharduera hauei lotzen ez zaion bestelako erabilpenik izan.
- 2.- Gehienez, 3,00 m-ko garaiera izango du hegarbe horizontaletan.
- 3.- Materialak: Fatxada harrizkoa edo margotutako zementozkoa izango da. Estalkia teila keramiko kurboz egingo da.
- 4.- Txabolak ez du baimen eskarian aipatzen diren neurriak baino gehiago hartuko.
- 5.- Txabola, bide eta jabetza mugetatik gutxienez, 10,00 m. baztertuko da.

UDALBILTZA PARTZUERGOAREN AURKAKO ERREKURTSOA

AURREKARIAK

Euskal Herriko Garapen eta Kohesiorako Fondoaren estatutuen kontra Estatuko Administrazioak Euskal Herriko Epaitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoaren aurrean aurkeztu duen 599/02 errekurtsu arruntaren berri izan da.

Udalbiltza Partzuergoak Udal hau epatu egin du, esandako autoetan demandatu gisa agertu ahal izan dezan.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasunak eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzea.
- 2.- Oro har, Udalbatzari dagokion administrazioko eta legezko akzioak egikaritzeko.
- 3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1k), 22.2j) eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Euskal Herriko Garapen eta Kohesiorako Fondoaren Estatutuen kontra Estatuko Administrazioak Euskal Herriko Epaitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoaren aurrean aurkeztu duen 599/02 zenbakidun auzi bidezko errekurtsio arruntan agertu eta parte hartzea.
- 2.- Abokatu-lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori eta ALBERTO ARENAZA ARTABE eta ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR Prokuradoreaz balia daitezke. Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada Udalbatzak erabakia berrestea.

IÑIGO AROCENA CIRACO

IÑIGO AROCENA CIRACO, NAN. 72.445.541 A Jaunak, Lizartzako Zakar Baserrian helbideratuak, 2003ko Otsailaren 3an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion uda-baimena ematea eskatzen du, bereizketa egin eta JOSE CRUZ GOÑI LIZARZA Jaunari emateko:

“El terreno castañal denominado ERROTABURUA, en término municipal de Lizarza, que tiene dieciseis áreas y cincuenta centiáreas de cabida oficial y veinticinco áreas y treinta y dos centiáreas de medida real pericial contiene, con descuento de un camino carretil que le atraviesa, y linda: Norte, con la regata; Esta, con pertenecidos de Aguirrebarrena y en parte con camino carretil, Sur, con pertenecidos del caserío Juan-Miguel-Aundia; y Oeste, con la regata y presa del Molino.”

Jose Cruz Goñi Lizarza Jaunak, beraren jabetzakoa den, eta Gazteluko Udalerrian kokatzen den, Errota izeneko etxeari lotuko dio bereizten den lur hau.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

IOLA BASERRIAREN TEILATUA ETA FATXADA KONPONTZEA – FRANCISCO ETXEBERRIA BERAKOETXEA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Obra egiterakoan, estaldura, Arau Subsidiarioen 19. artikulua arabera, teila keramikozkoa edo antzeko materialekoa izango da.
- Fatxadaren egungo izaera mantendu beharko da, egingo diren lanak, konpontze nahiz margotze lanak izango direlarik soilik.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko..

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

HERRI UR SARETIK ARTETXE-ALDEKO TERRENOETAN EGITEN ARI DIREN ETXERAKO UR HARTUNEA EGIN ETA OPOTEKO PRESA INGURUKO HERRI BIDETIK LURPERATUTA ERAMAN – JOSE M^a ZEBERIO ARRUABARRENA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Egin beharreko lanak bide publikotan burutuko direnez, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Irekitzen den guztia, berriz ere behar bezala utziko da, orain duen akabera berdinarekin eta urratutako guztia behar bezala berdinduaz.
- Errepidearen parteren bat ikuitu behar balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiako baimena eskuratu beharko da.
- Obratako eremua behar bezala seinalizatuko da eta lanak langaz behar bezala babestuko dira.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

IPINTZA BASERRIAN BANATZE HORMA BERRIAK EGIN ETA ZORUKO TAULA ALDATU – JOSE M^a ARRUABARRENA BEREZIARTUA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko..

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

SUKALDEKO ETA BAINUGELAKO AZULEJOAK ALDATU ETA ATE BERRIAK JARRI – M^a LUISA ZABALA GOÑI

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Bainugelatik kentzen diren azulejo nahiz bestelako eskonbroak zaku bidez jasoko dira eta behar den eskonbrearatara eraman beharko dira.
- Kontainerrik erabili nahi balitz eskonbroak jasotzeko, Udalaren adostu beharko da honen kokaera eta eskonbroak bertara tubo teleskopido bidez bideratu beharko dira.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko..

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.